

AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Oposizioak eta lehiaketak

HEZKUNTZA SAILA

4798

AGINDUA, 2025eko urriaren 30ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, honako agindu hauek aldatzen dituen: seigarren aldiz 2023ko ekainaren 21eko Agindua, zeinaren bidez argitara ematen baitira 2022ko irailaren 22ko eta azaroaren 30eko aginduen bidez deitutako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan hautatutako izangaien behin betiko zerrendak; eta, hirugarren aldiz, 2023ko urriaren 30eko Agindua, zeinaren bidez argitara eman baitzen hautaketa-prozesu horretan hautatutako pertsonen bigarren zerrenda osagarria eta uko egiteagatik edo deialdian eskatutako baldintzak ez betetzeagatik karrerako funtzionario izendatzeko eskubideak indargabetzen dituen bigarren hautatuen zerrenda.

Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2025eko uztailaren 10eko Ebazpenaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren epaia betez, Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2023ko ekainaren 5eko Ebazpenen seigarren aldaketa egin zen (2023ko ekainaren 16ko Ebazpenaren bidez zuzendu ziren). Ebazpen horietan, hurrenez hurren, argitara eman ziren Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzako unitateek barematu zituzten merezimenduen behin betiko puntuazioak eta Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko eta azaroaren 30eko aginduen bidez deitutako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuko merezimenduen guztizko puntuazioak.

Horren arabera, Leire Ziarrusta Atutxaren puntuazioak aldatu ziren iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan (Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko eta azaroaren 30eko aginduen bidez deitutakoa), aipatutako ebazpenean jasotako baldintzetan.

Horren ondorioz, aipatutako hautaketa-prozesua arautzen duten deialdiaren oinarriak ikusita, kidego eta espezialitate bakoitzeko izangaiak merezimendu-lehiaketa bidez salbuespenezko prozesuan lortutako guztizko puntuazioen arabera ordenatu behar dira. Hala, izangaiak zerrendako hurrenkeraren arabera hautatuko dira dagokien kidegoaren espezialitatean deitutako plaza kopurua bete arte.

Izangaien hurrenkera lortutako guztizko puntuazioen arabera aldatu beharraren ondorioz, hautatutako pertsonen zerrendetan sartu beharko dira hasieran hautatuak izan ez diren pertsona batzuk, dagokien espezialitatean hautatutako azken izangaiak lortutakoa baino guztizko puntuazio handiagoa aitortu zaielako. Hori dela eta, Leire Ziarrusta Atutxa hautatutako pertsonen zerrendan sartu behar da.

Bestalde, Hezkuntzako sailburuaren 2025eko maiatzaren 28ko Agindua ikusita, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren epaia betearazi behar da. Epai horren bidez, Gabriela Arribas Esterasek hautatutako pertsona izendatzeko eskubidea duela aitortzen da, egiaztatuta geratu baita hasieran hautatutako pertsonak eta ordezkoen zerrendan bere aurretik zeudenek uko egin dietela edo galdu egin dituztela zituzten eskubideak. Beraz, izendapena egitea dagokio, ezarritako lehentasun-hurrenkeraren arabera.

Horrenbestez,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Hezkuntzako sailburuaren 2023ko ekainaren 21eko Aginduaren I. eranskina aldatzea (agindu horren bidez, argitara eman ziren Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko eta azaroaren 30eko aginduen bidez deitutako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan hautatutako izangaien behin betiko zerrendak), helburu hauekin:

Epaia betez, Leire Ziarrusta Atutxa izangai hautatu gisa sartzea Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoko Euskara eta Literatura espezialitatean (txanda irekia, 2. hizkuntza-eskakizuna). 9,7950 puntu eman zaizkionez, hautatutako pertsonen zerrendan sartu behar da espezialitate horretan hautatu zen azken izangaiak 8,8000 puntu lortu zituelako guztira (2023ko ekainaren 21eko Aginduaren I. eranskina).

Bigarrena.– Hezkuntzako sailburuaren 2023ko urriaren 30eko Aginduaren I. eranskina aldatzea, hautatutako pertsonen bigarren zerrenda osagarriari buruzkoa (agindu horren bidez argitara eman ziren Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko eta azaroaren 30eko aginduen bidez deitutako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan hautatutako pertsonen bigarren zerrenda osagarria, bai eta uko egiteagatik edo deialdian eskatutako baldintzak ez betetzeagatik karrerako funtzionario izendatzeko eskubideak indargabetzen dituzten hautatutako pertsonen bigarren zerrenda ere), helburu hauekin:

Epaia betez, Gabriela Arribas Esteras izangai hautatu gisa sartzea Hizkuntza Eskola Ofiziale-tako irakasleen kidegoko HEO Italiara espezialitatean (txanda irekia, 1. hizkuntza-eskakizuna), 8,2000 guztizko puntuazioarekin.

Hirugarrena.– Hogeia egun balioduneko epea irekitzea, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, lehenengo eta bigarren apartatuetan aipatutako izangai hautatuek Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko Aginduaren 8.1 oinarrian adierazitako dokumentuak aurkez ditzaten.

Dokumentazioa online aurkeztuko da <https://hezigunea.euskadi.eus/> webgunean, «erabiltzaile (NAN/AIZ)» eta «pasahitza» sartuta (tramitagune – «administrazio-espeditenteak: eskabideak, erreklamazio formalak, errekursoak» – gainerako izapideak).

Agindu honen eranskinean daude hautatuek bete eta adierazitako helbidean aurkeztu beharreko agiriak: zinpeko aitorpenaren eredia eta hautatuek dokumentazioa entregatzeko agiria.

Laugarrena.– Eskatutako dokumentazioa aurkezten ez duenak edo, hori aztertzean ondorioztatzen bada ez duela betetzen deialdiaren 2. oinarrian adierazitako baldintzaren bat, karrerako funtzionario izendatua izateko eskubide guztiak galduko ditu, hargatik eragotzi gabe hasierako eskabidea faltsutzeagatik izan dezakeen erantzukizuna. Era berean, eskubide guztiak galduko ditu osasun-azterketan ez gai kalifikatzen denak.

Bosgarrena.– Agindu honen aurka, berraztertzeko errekursoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urriaren 30a.

Hezkuntzako sailburua,
MARÍA BEGOÑA PEDROSA LOBATO.

ERANSKINA

EPE 2022. IRAKASLEAK. EGONKORTZEKO SALBUESPENEZKO PROZESUA
HAUTATUEK DOKUMENTAZIOA ENTREGATZEKO

Abizenak:		
Izena:	NAN:	Telefonoa:
Especialitatea:		
Hautatua izan naiz Hezkuntza sailburuaren 2022ko irailaren 22ko eta 2022ko azaroaren 30eko Aginduen bidez deitutako hautaketa-prozesuan. Hori dela-eta, honako agiri hauek aurkezten ditut (deialdiaren 8. oinarria):		
AURKEZTUKO DITUZUN AGIRIEN ZERRENTA (Adierazi x bat jarrita zer dokumentu entregatuko dituzun). ☐ Kidegoan sartzeko eskatutako titulua edo jaulkitzeko eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria (*Oharra). ☐ NAN (edo, atzerritarra bazara, dagokion dokumentua: 8.1.a) oinarria) (*Oharra). ☐ Zinpeko aitortpena edo promesa. ☐ Hizkuntza-eskakizunaren titulua edo ziurtagiria, baldin eta ez badago jasota Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan edo Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan. ☐ Prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa edukitzea egiaztatzen duen ziurtagiri edo titulua; edo, hala badagokio, betekizun horretatik salbuesten duen titulua edo esperientzia-agiria. ☐ Ziurtagiria edo master-titulua PPD ☐ Titulu baliokideak ☐ Irakasle-esperientzia ☐ Ziurtagiria, epai irmo baten bidez sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituen bategatik zigortua izan ez zarela adierazten duena (*Oharra). ☐ Gaztelaniaz badakizula egiaztatzeko agiria (ez baduzu Espainiako nazionalitatearik eta espainiera ez bada zure herriko hizkuntza ofiziala).		
(*)Oharra: EZ BADUZU AGIRIA ENTREGATUKO baina kontsultatzeko baimena eman nahi baduzu, EZ MARKATU GOIAN dagokion ataleko koadroa ETA ADIERAZI HEMEN BAIMENA EMATEN DUZULA.		
Data, tokia	Izenpetua.	

LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENTZAT. HEZKUNTZA SAILA
EPE 2022. IRAKASLEAK. EGONKORTZEKO SALBUESPENEZKO
ZINPEKO AITORPENA

Nik (izen-abizenak ,; NAN zk.....) honako hau EGITEN DUT,
honen bidez:

Zinpeko aitorpena edo promesa ez nautela inongo administrazio publikotik zigor-espediente baten ondorioz egotzi, ez nagoela funtzio publikoak gauzatzeko ezgaituta, eta ez nagoela Herri Administrazioetan jarduten duten langileen bateraezintaunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitako ezgaitasun eta bateraezintasunaren legezko inolako kausatan sartuta.

.....(e)n, 2025eko.....aren.....(e)an.

Izpta.:

Nazionalitate espainolik ez duten izangaiek bete beharrekoa:

Nik (izen-abizenak ,; NAN zk.....) honako hau ADIERAZTEN
DUT, zinez

Ez dut,(e)an (Estatuaren izena), Funtzio Publikora sartzea eragozten duen diziiplina- edo espetxe-zigorrik.

.....(e)n, 2025eko.....aren.....(e)an.

Izpta.: